



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2022ko ekainaren 23koa, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREARENA, UNIBERTSITATEKO IRAKASLE AGREGATUAREN PLAZA BETETZEKO LEHIAKETAN ONARTUTAKO ETA KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARATZEKO DENA.

2022ko maiatzaren 4ko Erabakiaren bidez deia egin ondoren unibertsitateko irakasle agregatuaren plaza betetzeko (2022ko maiatzaren 17ko EHAA), eta amaituta onartuen eta kanporatuen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea (deialdiko 4.1. oinarrian zehaztutakoa), errektoreak ondokoa erabaki du:

Lehena.- Onestea lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda erabaki honen eranskinean jasotako moduan eta argitara ematea. Zerrenda Irakasle eta Ikertzaileen Ataleko iragarki oholean eta unibertsitatearen web orrian ere argitaratuko da (<http://www.ehu.eus/>, Irakasleak-Deialdi bideratuak).

Bigarrena.- Argitara ematea erabaki honen eranskin moduan agertzen den lehiakide onartuen eta kanporatuen behin betiko zerrenda.

Hirugarrena.- Erabaki hau izapide egintza kualifikatua da eta bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke UPV/EHUko Errektoreari, hilabeteko epearen barruan zerrenda Unibertsitateko web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasita, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta hurrengoetan jasotako moduan; edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa bada), edo Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan (errekurtso egilea aurretik funtzionarioa ez bada).

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Leioa, 2022ko ekainaren 23koa.

ERREKTOREA

Eskumenak eskuordetuta (Erabakia, 2021eko urtarrilaren 28koa, errektorearena; otsailaren 12ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea

30628936C

FEDERICO RECART

(R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por


30628936C FEDERICO

RECART (R: Q4818001B)

Fecha: 2022.06.23

09:09:36 +02'00'

Izpta.: Federico Recart Barañano





Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERANSKINA. LEHIAKETARA ATERATAKO PLAZAREN DATUAK:

Lanpostuaren zenbakia: 1. Kodea: AGVP6L1- D00084-1. Kategoria: Irakasle agregatua (lotutako lanpostua). Jakintza arloa: Medikuntza. Medikuntza Espezialitatea: Kardiologia. Saila: Medikuntza. Ikastegia: Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea (Basurtuko Unibertsitate ospitalea). Hizkuntz eskakizuna: Ez-elebiduna. Arduraldia: partziala. Eman beharreko gaiak: «Patologia eta Klinika Medikoa I».

ONARTUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA:

Izena eta deiturak: JOSE MIGUEL ORMAETXE MERODIO
NAN: ***7925**

KANPORATUTAKO LEHIAKIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDA: Bat ere ez